



**BIZKARGI MUSIKA eta DANTZA ESKOLA**

**HEZKUNTZA PROIEKTUA**



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

### AURKIBIDEA

|   |    |
|---|----|
| 1. HEZKUNTZA PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA .....                   | 2  |
| 2. NORTASUN PRINTZIPIOAK.....                                   | 2  |
| 2.1. LAN INGURUNEA.....   | 3  |
| 2.2. SORRERA ETA BILAKAERA .....                                | 3  |
| 2.3. ESKOLAREN ANTOLAKETA OROKORRA.....                         | 4  |
| 2.3.1. Eskolaren antolaketa .....                               | 4  |
| 2.3.2. Dokumentu nagusiak.....                                  | 5  |
| 2.3.3. Irakasleak.....  | 6  |
| 2.3.4. Instalazioak eta baldintza materialak.....               | 6  |
| 2.3.5. Irudi korporatiboa .....                                 | 7  |
| 2.3.6. Komunikazio plana .....                                  | 7  |
| 3. ESKOLAREN HELBURUAK.....                                     | 8  |
| 3.1. XEDEA.....   | 8  |
| 3.2. IKUSPEGIA .....  | 9  |
| 3.3. BALIOAK.....   | 9  |
| 3.4. HELBURU OROKORRAK .....                                    | 10 |
| 3.5. ANIZTASUNAREN TRATAERA .....                               | 11 |
| 4. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA.....                                 | 12 |
| 5. TUTORETZA.....   | 12 |
| 6. MATRIKULATZEKO ARAUBIDEA .....                               | 12 |
| 7. ERREKLAMAZIO-PROZEDURA.....                                  | 12 |
| 8. HIZKUNTZEN TRATAERA .....                                    | 13 |
| 9. BESTE ZENTRO ETA ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANA .....         | 13 |
| 10. ESKOLAREN CURRICULUM PROIEKTUA.....                         | 13 |
| 11. ESKOLAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA .....              | 13 |
| 12. BIZIKIDETZA ETA HEZKIDETZA EREMUA.....                      | 14 |
| 13. SEXU-ABUSUEN JARDUTEKO PROTOKOLOA.....                      | 14 |
| 14. HEZKUNTZA PROIEKTUA ONARTZEA, EBALUATZEA ETA ALDATZEA ..... | 14 |



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

### 1. HEZKUNTZA PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA

Eskolaren Hezkuntza Proiektua (EHP) Eskolaren erabaki eta proiektu handiei gorputza, koherentzia eta orientazioa ematen dien agiria da. Eskola-komunitateak, bere autonomiaren bidez, Eskolarako osatutako hezkuntza-aukera adierazten du bertan. Ondorioz, EHP proposamen integrala eta globala da; Eskolaren beraren ezaugarrien helburuak zehazten ditu, eta horiek nola bete adierazten du.

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren Hezkuntza Proiektua egiterakoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Musika eta Dantza Eskolak arautzen dituen maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretuaren 3. artikulua betez, Eskolaren funtsezko bi helbururi erantzutea izan da kontuan hartu den irizpide nagusia:

1. Dekretu horrek musika eta dantzako arautu gabeko prestakuntza-zentro mota horietarako ezarritako hezkuntza-helburuak lortzea, edozein adinetako pertsoneri zuzendutako musikako eta dantzako prestakuntza praktikoa eskainiz, bokazio eta gaitasun berezia duten pertsonen lanbide-ikasketetarako orientazio- eta prestakuntza-eginkizuna alde batera utzi gabe
2. Bere gizarte-ingurunearekin ahalik eta lotura handiena ezartzea eta mantentzea, bere jardun-eremuan berezkoak dituen funtzio soziala eta kultura-hedapenekoak betetzeko.

Arestian aipatu bezala, Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak diseinatutako hezkuntza proiektu honek esku-hartze prozesu guztiak modu koherentean formulatzeko proposamen integrala jasotzen du, bai kanpo-proiektioaren eremuan, bai antolaketaren eta barne-jardueraren esparruan. Era berean, esan behar dugu dokumentu hau malgua izango dela, urtez urte aurrera egin dezagun, Eskolaren antolaketa eta funtzionamendua etengabe hobetzeko.

### 2. NORTASUN PRINTZIBIOAK

Bizkargi Musika eta Dantza Eskola Aita Madinabeitia kalean dago, z/g, 2015eko urtarriletik. Musika eta Dantza Eskola titulartasun pribatuko irabazi-asmorik gabeko elkarte da, eta Eskolaren titulartasuna elkarte kudeatzen duen Zuzendaritza Batzordearena da, Eskola elkarte horren mende baitago.

Eskola ikasleen kuotekin finantzatzen da, eta, hein handi batean, Hezkuntza Sailak eta Azkoitiko Udalak esleitutako dirulaguntza publikoekin.

Musika eta Dantza Eskola Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak baimendutako D ereduko ikastetxea da, eta musika eta dantzako irakaskuntza ez-arautuetan espezializatuta dago. Edozein adinetarako musika-prestakuntzako programak ditugu, mundu guztiak gure eskolan tokia izan dezan, eta, horrela, gure proiektuan parte hartu nahi duen herritar orenen musika-interesei erantzuteko.



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

### 2.1. LAN INGURUNEA

BIZKARGI Musika eta Dantza Eskola Azkoitian dago, Gipuzkoako Urola erdialdeko eskualdean. Udalerriak 11.992 biztanle zituen 2024ko urtarrilaren 1ean.

Herriko bizitza kulturala nahiko aberatsa dela esan daiteke, eta Eskolak modu aktiboan parte hartzen du Udaleko Kultura Sailarekin lankidetzan edo Eskolak berak antolatutako hainbat kultura-jarduera publikotan. Horien artean aipagarrienak dira, besteak beste, herriko San Andres jaiak, Erregeen kabalgata, udaberriko Taldez-Talde ekimena, San Jose Egoitzako egoiliarrentzako antolatutako adinekoaren astean parte hartzea, San Juan bezperako sua ... Jarduera horiek guztiak Eskolaren Urteko Plan Estrategikoan jasotzen dira.

### 2.2. SORRERA ETA BILAKAERA

Donostiako Kontserbatorioak musika-ikasketak deszentralizatzea proposatu zuen 1979an, mende bat betetzen zuenean eta mailarik gorenera iristear zegoenean. Lurralde osoko ikasleen matrikulazio kopurua nabarmen hazi zen, eta horrek arazo bat sortzen zuen, ikasle horiek guztiak hainbat herritara joan behar baitzuten azterketak egitera.

Azkoitian, eta garai hartan, benetako erronka zen balio akademikoak zituen eskola bat sortzea. Erronka horri aurre eginez, herriko irakasleek eta gurasoek osatutako batzorde batek proiektu berria martxan jartzeko ekimena aurkeztu zuen Udaletxean. Proposamen hau 1983ko otsailaren 19ko udalbatzarrean onartu zen eta horrela sortu zen Bizkargi Musika Eskola erakunde autonomoa.

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak Eusko Jaurlaritzaren behin betiko baimena 1982-83 ikasturtean lortu zuen.

Hasiera batean, Musika Eskolak oinarrizko maila emateko baimena baino ez zuen lortu; eta 1991ko azaroan maila ertaina emateko lortu zuen. Irakaskuntza mota nahiko zorrotza zen, etorkizuneko profesionalak sortzeko prestakuntza baino ez baitzen eskaintzen

LOGSEren legeak beste ate batzuk ireki zituen musika-irakaskuntzaren esparruan. 1994an, Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak orain ematen den irakaskuntza-ereduari ekin zion.

Gaur egun, Eskola irakaskuntza modalitate guztietara irekita dago, betiere eskariaren eta baliabideen arabera. Funtsezkoa da Musika eta Dantza Eskola harrobi bat izatea herrian askotariko taldeak bultzatzeko, hala nola ahots musikako taldeak, instrumentu eta dantza taldea eta baita joera berrikoak ere. Nabarmenezkoa da, halaber, ikasleen profil anitza, Eskolak adin guztietako ikasleak jasotzen baititu (umeak, gazteak eta helduak)



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

### 2.3. ESKOLAREN ANTOLAKETA OROKORRA

#### 2.3.1. Eskolaren antolaketa

Hurrengo diagraman jasotako Eskolaren gobernu-organoen (taldekoak eta pertsona bakarrekoak) eta irakaskuntza-koordinaziorako organoen osaera eta funtzioak Eskolaren Antolamenduaren eta Jardueraren Araudiaren I. tituluaren I., II. eta III. kapituluetan jasotzen dira.

#### TITULARTASUNA

##### Batzar Nagusia

*Bizkargi Musika eta Dantza Eskola* Elkartearen Organo Gorena da eta elkartekide guztiek osatzen dute.

##### Zuzendaritza Batzordea

*Bizkargi Musika eta Dantza Eskola* Elkartearen interesak kudeatzen eta ordezkatzeko ditu, Batzar Nagusiaren xedapen eta zuzentarauen arabera.

#### ZUZENDARITZA

##### Eskolako Zuzendaria

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolako zuzendaria eskolaren funtzionamendu egokiaren, kudeaketaren eta zuzendaritza pedagogikoaren arduradun nagusia da.

#### KLAUSTROA

##### Irakasleen klustroa

Irakasleen klustroa irakasleek Eskolaren gobernuan parte hartzeko berezko organoa da, eta Eskolako hezkuntza-alderdi guztiak planifikatzeko, koordinatzeko eta, hala badagokio, erabakitzeko ardura du.

Klaustroko burua zuzendaria izango da, eta Eskolan egiten duten irakasle guztiek osatuko dute.

#### DEPARTAMENTUAK

##### Eskolako Departamentuak:

- Sustrai Tradizionaleko Musika eta Dantza
- Musika Hizkuntza
- Ahotza eta Kantua
- Tekla eta Laguntza Instrumentala
- Soka
- Haizea, Perkusioa eta Banda
- Musika Modernoa eta Konboak



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

### 2.3.2. Dokumentu nagusiak

Eskolaren funtzionamendua, antolaketa eta hezkuntza-jarduera arautzen dituzten dokumentu nagusiak honako hauek dira:

- **Bizkargi Musika eta Dantza Eskola Elkartearen Estatutuak (EEE):** Elkartearen funtzionamendua eta antolaketa arautzen dituen dokumentua da.

Batzar Nagusia da estatutuak aldatzeko eta onartzeko eskumena duen organoa.

- **Eskolaren Hezkuntza Proiektua (EHP):** Eskolaren erabaki eta proiektu handiei gorputza, koherentzia eta orientazioa ematen dien dokumentua da. Bertan zehazten eta jasotzen dira, besteak beste, Eskolaren nortasun printzipioak, xedea, balioak, helburuak eta Eskolarako eratu den hezkuntza-eskaintza.

Eskolaren hezkuntza-proiektuaren garapenaren ardura Eskolako zuzendariak izango du, eta Hezkuntza Komunitateko gainerako kideen ekarpenak bilduko ditu Zuzendaritza Batzordeko ordezkarien bitartez.

Zuzendaritza Batzordea da Hezkuntza Proiektua aldatzeko eta onartzeko eskumena duen organoa.

- **Antolakuntza eta Jarduera Araudia (AJA):** Eskolako hezkuntza-komunitatearen funtzionamenduarekin, antolamenduarekin eta bizikidetzarekin lotutako alderdiak arautzen dituen dokumentua da.

Zuzendaritza Batzordea da Hezkuntza Proiektua aldatzeko eta onartzeko eskumena duen organoa.

- **Eskolaren Curriculum Proiektua (ECP):** Eskolaren hezkuntza-eskaintza eta Eskolaren irakaskuntza- eta metodologia-estiloa definitzen dituen dokumentua da. Horien guztien zehaztapena programazio didaktikoetan jasotzen da.

Irakasleen klaustroa da Curriculum Proiektua aldatzeko eta onartzeko eskumena duen organoa.

- **Eskolaren Urteko Plana (EUP):** Eskolaren Urteko Planak hezkuntza-proiektua garatzen du, ikasturte bakoitzean lehenetsitako helburuak eta jarduerak planifikatuz eta haien garapen koordinatua bermatuz. Eskolako zuzendaria arduratuko da hura idazteaz eta lantzeko prozesua koordinatzeaz eta dinamizatzeaz, eskolako gainerako organoek (Zuzendaritza Batzordea eta Klaustroa) egindako proposamenak kontuan hartuta.

Zuzendaritza Batzordea da Urteko Plana onartzeko eskumena duen organoa.



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

- **Eskolaren Urteko Memoria (EUM):** Batetik, ebaluazio-dokumentu bat da, amaitutako ikasturtean burututako jardueren azterketa eta ebaluazioa baitakar, eta, bestetik, etorkizun hurbilaren ikuspegia du, hurrengo ikasturteari begira esku hartzeko eta hobetzeko proposamenak jasotzen dituelako.

Eskolaren Urteko Memoria idaztea zeregin partekatua da, baina, batez ere, Eskolako zuzendariari dagokio, prozesu osoa koordinatzeaz eta amaierako dokumentua idazteaz arduratzen baita, Zuzendaritza Batzordearen eta irakasleen klaustroaren ekarpenak barne hartuta.

Batzar Nagusia da Urteko Memoria onartzeko eskumena duen organoa.

### 2.3.3. Irakasleak

Irakasle guztiek betetzen dituzte dagozkion irakaskuntzak emateko 64/2024 Dekretuaren 70. artikuluan ezarritako baldintzak. Eskolako irakasle kopurua ikasturte bakoitzean dagoen eskaeraren arabera da. Azken urteotan, klaustroko kideen kopurua hamasei eta hemezortzi irakasle artekoa izan da. Gaur egun ditugun bostehun ikasle ingururi arreta emateko, espezialitate honetako irakasleak ditugu:

- Musika Tailerra 4
- Musika Hizkuntza 5
- Pianoa 3
- Gitarra 1
- Klarineta 1
- Zeharkako txirula 1
- Saxofoia 1
- Tronboia, Tronpeta, Bonbardinoa 1
- Perkusioa 1
- Biolina 1
- Txistua 1
- Trikitixa 1
- Panderoa 1
- Euskal Dantza 1
- Kantua 1
- Harmonia 1

### 2.3.4. Instalazioak eta baldintza materialak

Musika eta Dantza Eskolak 64/2024 Dekretuaren 11. artikuluan jasotako baldintzak betetzen dituzten berariazko instalazioak ditu. Espazio guztiek betetzen dituzte egiturazko segurtasunari, suteen segurtasunari, erabilera-segurtasunari, osasungarritasunari, irisgarritasunari, zarataren aurkako babesari eta energia aurrezteari buruz indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzak.



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

Ikasgelak ere behar bezala hornituta daude baliabide didaktikoei, instrumentalei eta teknologikoei dagokienez.

Eskolarako materiala erosterakoan, ahal den guztietan, kontsumo eta ekoizpen jasangarriaren printzipioarekin (2030 AGENDAREN 12. printzipioa) bat datozen produktuei emango zaie lehentasuna. Beraz, esaterako, ekonomia zirkularretik, birziklapenetik eta abarretik datorren produktuari emango zaio lehentasuna.

Irakaskuntza- eta kudeaketa-eremuak solairu bakarrean daude, eta gutxi gorabehera mila metro karratu hartzen dituzte. Espazio horiek honela daude banatuta:

- Sarrera: 32,48m<sup>2</sup>
- Idazkaritza-Zuzendaritza: 32,45m<sup>2</sup>
- Komunak- ikasle/irakasle/egokitua: 31,84m<sup>2</sup>
- Txikienezako komunak: 7m<sup>2</sup>
- Irakasle gela: 22m<sup>2</sup>
- Fonoteka/Informatika: 42,45m<sup>2</sup>
- Biltegiak: 20m<sup>2</sup>
- Erabilera anitzeko 2 gela: entsegu-aretoa eta perkusio-gela: 146,49m<sup>2</sup>
- 8 instrumentu-gela: 161,4m<sup>2</sup>
- Dantza Gela/aldagela: 71,78m<sup>2</sup>
- 5 gela Taldeko ikasgaiak emateko (Musika Tailerrak, Musika Hizkuntza, Instrumentu Taldeak, Abesbatza, etab.): 171,41m<sup>2</sup>

### 2.3.5. Irudi korporatiboa

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak bere irudi korporatiboa du. Logotipo hau Eskolako dokumentu guztietan erabiltzen da.



### 2.3.6. Komunikazio plana

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak honako kanal eta bitarteko hauek erabiltzen ditu esparru akademikoari, administrazio-izapideei, funtzionamenduari eta antolamenduari eta ikasturtean zehar antolatzen diren jardueri buruzko informazioa emateko:



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

- **Inika plataforma:** 2022-23 ikasturtean Eskolak INIKA plataforma digitala ezarri zuen kudeaketa administratibo eta akademikorako. Beraz, ordutik aurrera, INIKA da Eskolaren lehenetsuneko komunikazio-kanala ikasleekin eta familiekin. Plataforma horren bidez, honako informazio helarazten da: ikasleen noten buletinen, ikasleen bertaratze-falten eta familientzat eta ikasleentzat interesgarria den askotariko informazioa.
- **Ate irekien Jardunaldia:** jarduera hau Eskolaren komunikazio eta proiektu jarduera bat da, eta bere helburu nagusia haurrak Musika Tailerraren espezialitatean matrikulatu nahi dituzten familia berriak 0 eta 3 urte bitarteko ikasleentzat ezagutzera ematea da. Hala, etorkizuneko familia horiek espezialitate hori emango dien irakaslea ezagutzeko eta informazioa bertatik bertara jasotzeko aukera paregabea dute.
- **Instrumentuak aurkezteko saioak:** ikasturteko bigarren hiruhilekoan, musika-tresnak aurkezteko eta probatzeko jarduerak antolatzen dira. Saio hauek musika-tresnaren bat ikasten hasi nahi duen edonori zuzenduta daude.
- **Iragarki-taula:** Bertan, besteak beste, ikasturteko talde-ordutegiak eta bestelako informazioak argitaratzen dira.
- **Ikasleekin eta familiekin bilerak:**
  - Zikloaren edo mailaren informazioa: Zikloari edo mailari buruzko informazioa: irakasleek 2. hiruhilekoan bilerak egiten dituzte familiekin, seme-alabak ikasturtetik edo ziklotik igaro aurretik, maila edo ziklo berri horri buruzko informazioa emateko.
  - Instrumentu-klaseen ordutegiak: irakasleak ekainean jartzen dira harremanetan ikasleekin edo familiekin, instrumentuen ordutegiak adosteko.
- **Webgunea** ([www.bizkargimusikaeskola.eus](http://www.bizkargimusikaeskola.eus)): komunikazio-kanal hau bitarteko bikaina eta azkarra da, Eskolako erabiltzaileentzat eta Eskola ezagutu nahi duen edonorentzat, Eskolaren funtzionamenduari eta antolamenduari, ikasturtean zehar antolatzen diren jarduerari eta bestelako berriei buruzko informazioa ezagutzera emateko.
- **Sare sozialak:** Eskolak sare sozial hauen bidez ere ematen du bere jardueren berri: YouTube, Instagram, Facebook eta TikTok.

### 3. ESKOLAREN HELBURUAK

#### 3.1. XEDEA

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren helburu orokorra herritar guztiei zuzendutako musikako eta dantzako prestakuntza praktikoa eskaintzea da, komunitateko bizitza kulturealean askatasunez parte hartzeko eta Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalaren 27. artikuluan jasotako arteez gozatzeko eskubidea baliatzeko modutzat hartuta, bai eta bokazio eta gaitasun



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

berezia dutenen ikasketa profesionaletarako eta lan-mundu artistikorako orientatuz eta prestakuntzatza ere.

### 3.2. IKUSPEGIA

Guztionezko gune bizia eta berritzailea izatea, irakaskuntza sortzailea eta kalitatezkoa emanez, eta, horretarako, irakasle kualifikatuak eta inplikatuak izatea, ikasleekin batera herriko kultura-jarduera dinamizatzen lagunduko dutenak.

### 3.3. BALIOAK

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren helburuetako bat printzipio etiko eta zibikoetan oinarritutako irakaskuntza ematea da, Eskolari eta bere kideei eredu gisa erabiltzen dituen musikaren eta dantzaren berezko balioak transmitituz, hala nola:

- **Euskalduna:** euskararen eta euskal kulturaren transmisio eta garapenarekin konprometitu, hezkuntza-jarduera euskara hutsean garatuko duena eta kideen arteko harremanetarako eta komunikaziorako hizkuntza euskara izatea lehenetsiko duena.
- **Inklusibotasuna:** irakaskuntza ikasleen ezaugarrietara egokituz eta ikasleen gaitasun guztiak garatuz.
- **Aniztasuna:** ikasleen aniztasuna kontuan hartuta, haien aukera-berdintasuna eta berariazko edo beharrezko babesa bermatuz.
- **Hezkidetza:** berdintasunezko harremanak sustatuz, diskriminazio mota guztiak baztertuz eta genero-berdintasunaren aldeko jarrerak sustatuz
- **Bizikidetza:** giza eskubideak eta bizikidetza positiboaren eta demokratikoaren printzipioak jarduera osoan errespetatuz.
- **Parte-hartzea:** ikasleek eskolako talde-jardueretan eta, aldi berean, herriko eta inguru hurbileko kultura bizitzan parte har dezaten lagunduz.
- **Kulturartekotasuna:** beste kultura batzuk ezagutzeko, errespetatzeko eta haiekin bizitzeko kulturartekotasuna bultzatuz.
- **Lankidetza:** beste musika- eta dantza-eskola batzuekin eta elkarte eta erakundeekin lankidetza bultzatuz.
- **Berrikuntza:** etengabeko hobekuntzaren eta berrikuntzaren aldeko apustua eginez, irakasleak prestatuz eta metodologia berriak ezarriz, Eskolaren beharren testuinguruan, kalitatezko hezkuntza eskaintzeko.



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

- **Belaunaldien artekoa:** adin ezberdinetako pertsonen integrazioa eta elkarlana erraztuz.
- **Gardentasuna:** kudeaketa gardena eta eraginkorra eginez.

### 3.4. HELBURU OROKORRAK

64/2024 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritako helburuen arabera, Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak ondoren azalduko diren helburuak ezartzen ditu, eremuen arabera bereizita. Helburu horiek urtero garatuko dira Eskolaren Urteko Planean eta Eskolaren Urteko Memorian ebaluatuko dira.

#### EREMU PEDAGOGIKOA

1. Adin guztietako ikasleei kalitatezko irakaskuntza eskaintzea, oinarri teorikoetatik hasi eta praktika integraleraino, instrumentu- eta dantza-espezialitateetan banakako eta taldeko praktikara bideratutako irakaskuntza emanez, ikasleei konpetentzia artistiko berriak eskuratzen laguntzeko.
2. Espezialitate bakoitzaren adierazpen espezifikoaren eskaintza ahalik eta zabalena eta dibertsifikatuena eskaintzea, giza sormenaren forma desberdinen ikuspegi bateratua sortzen duten jardura kolektiboaren bidez, espezialitateen artean elkarrekin eta sinergiak sortzeko.
3. Irakaskuntzaren plangintza eta garapena pertsona bakoitzaren ahalmen eta gaitasunetara eta norberaren errealizaziora egokitzea, irakaskuntza-askatasuneko eta -autonomiako testuinguruaz baliatuz, eskaintza ikasleen interesetara eta ikaskuntza-eritmoetara egokitzeko.
4. Gaitasun eta bokazio artistikoa duten ikasleak orientatzea, beren ibilbide akademikoa prestatuz eta egokituz, ondorengo ikasketetan, lanbide-ikasketetan eta goi-mailako ikasketetan sartzen laguntzeko.
5. Metodologia berritzaileen ezarpena bultzatzea, besteak beste, irakatsi eta ikasteko prozesuan informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera integratuz, kalitatezko hezkuntza-eskaintza eguneratua bermatzeko.

#### BIZIKIDETZA EREMUA

6. Tratu onean eta errespetuan oinarritutako bizikidetza positiboa garatzea, berdintasunaren eta hezkidetzaren ikuspegitik, balio horiek eskola-jardueretan eta irakasleen prestakuntzan presente egon daitezen zainduz, diskriminazio mota oro prebenitzeko eta saihesteko.



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

7. Irakaskuntza inklusiboak bermatzea, berdintasunean eta aniztasunarekiko errespetuan oinarritutako hezkidetzaren ikuspegitik, balio horiek eskola-jardueretan eta irakasleen prestakuntzan presente egon daitezen zainduz, diskriminazio mota oro prebenitzeko eta saihesteko.

### EREMU SOZIOKULTURALA

8. Musikaren eta dantzaren praktika artistikoaren gizarte-eskaera zabala asetzea, adin guztietarako hezkuntza eskaintza zabala eta anitza eskainiz, beren gaitasun artistikoetan aurrera egiteko eta, horrela, hainbat taldetan parte hartzeko aukera izateko.
9. Erakunde baten edo Eskolaren beraren ekimenez antolatutako kultura-jardueretan parte hartzea, ikasleek osatutako taldeen etengabeko jarduera publikoaren bidez, herri-kulturaren garapenean eragin positiboa izateko.
10. Herritarrei zerbitzu kohesionatua, eraginkorra eta kalitatezkoa eskaintzea, tokiko tradizioak zabalduz eta Euskadiko musikaren eta dantzaren hezkuntza-ekosistema osatzen duten erakunde eta taldeekin komunikazioa eta koordinazioa sustatuz, Eskola herriko kultura-erreferenteetako bat izateko.

### PRESTAKUNTZA EREMUA

11. Irakasleen etengabeko hobekuntza eta eguneratzea sustatzea, berdintasunaren eta genero-ikuspegiaren arloko prestakuntza eta hezkidetzaren barne, metodologia berritzaile eta aurrerakoien bidez, musika- eta dantza-irakaskuntzak hobetzen laguntzeko.

### KUDEAKETA EREMUA

12. Aurrekontua eraginkortasunez kudeatzea, Eskolaren antolamendu- eta funtzionamendu-beharren kudeaketari lehentasuna emanez, funtzionamendu egokia bermatzeko.
13. Eskolako instalazioak eta ekipamendua egoera onean mantentzea, bere jarduerak ahalik eta baldintza onenetan garatzeko beharrezkoak diren hobekuntzak eginez.

### 3.5. ANIZTASUNAREN TRATAERA

Musika eta Dantza Eskolan, ikasleak pertsona ugari osatzen dituzte, sexuaren, adinaren, interesen, nazionalitatearen, ezaugarrien eta inguruabar pertsonalen arabera. Beraz, aniztasunarekiko arreta Eskolak bere gain hartu beharreko konpromisoa da.

Eskolako hezkuntza-eskaintzaren antolamenduak bermatzen du, banakako, partekatutako eta taldeko saioak behar bezala erabiliz, ikasle bakoitzak bere premiekin bat datorren arreta pertsonalizatua jasoko duela, eta, aldi berean, inklusioa eta elkarrekintza bultzatuko direla. Bestalde, ikasle batzuek izan dezaketen dibertsitate funtzionalari erantzuteko, irakaskuntza



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

ikasleen ezaugarri indibidualetara egokituko da, eta haien premiei erantzungo dieten ezaugarri espezifikoak dituzten programak egokituko dira, Eskolaren baliabideek ahalbidetzen duten neurrian.

Gaitasun handiko ikasleen kasuan, landutako edukiak malgutu egingo dira, haien estaldura handituz, jarduerak zabalduz eta prestakuntza-prozesuan gero eta konplexutasun handiagoa sartuz, haien motibazioa eten ez dadin.

#### 4. IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA

Hezkuntza-kalitatea irakasleengan hasten denez, irakasleen etengabeko prestakuntza funtsezko jarduera da Bizkargi Musika eta Dantza Eskolarentzat. Horregatik, Eskolak bere irakasleen prestakuntza, bultzatu eta erraztuko du, gure hezkuntza-proiektuan zehaztu ditugun helburuak lortzeko.

Prestakuntza-ikastarok esparru akademikoa hartzen dute, adibidez, metodologia berrietan trebatzeko, bai eta hezkuntzako beste alderdi batzuk ere, hala nola hezkidetzari buruzkoak. Musika- eta dantza-eskolen irakaskuntzak euskal hezkuntza-sistemaren hezkidetzaren eredura egokitzeari buruzko 64/2024 Dekretuaren xedapenarekin bat etorriz, ezinbestekotzat jotzen da Eskolako irakasleen prestakuntza sustatzea eta erraztea hezkidetzaren arloan, hori baita Eskola inklusibo baterantz garamatzen bidea.

#### 5. TUTORETZA

Eskolan matrikulatutako pertsona orok tutore bat izango du (espezialitateko irakaslea) hezkuntza-aukerei buruzko orientabideak eta aholkuak emango dizkiona.

Tutorea erreferentziazko pertsona izango da ikasleak eta familiak Eskolarekin komunikatzeko, eta hezkuntza-prozesua behar bezala garatzen dela eta hezkuntza-komunitatean integratzen dela zainduko du. Gatazkak ebaztea bultzatuko du, halakorik balego, ikaslearekiko hurbiltasun-harreman baten bidez.

Era berean, ikasle bakoitzaren ebaluazioaren jarraipena egiteaz arduratuko da, eta haren berri emango du, indarrean dauden jarraibideen arabera.

#### 6. MATRIKULATZEKO ARAUBIDEA

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak EAEn musika eta dantza eskolak arautzen dituen 64/2024 Dekretuaren 52. artikuluaren 3 idatz-zatia betez, bere matrikulazio-araubide hau ezarria du Eskolaren AJAren V. Tituluan.

#### 7. ERREKLAMAZIO-PROZEDURA

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak bere Antolakuntza eta Jarduera Araudiaren 82. artikuluan ezarrita dauka Eskolari erreklamazioak aurkezteko prozedura.



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

### 8. HIZKUNTZEN TRATAERA

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak, D ereduko ikastetxe gisa, euskara hutsean egingo du bere hezkuntza-jarduera. Familiei eta ikasleei bidaliko zaien idatzizko informazioa euskaraz bakarrik edo bi hizkuntza ofizialetan emango da, horiek berariaz hala eskatzen badute.

### 9. BESTE ZENTRO ETA ERAKUNDE BATZUEKIKO HARREMANA

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren asmoa da bere proiektu hau aurrera eramaten eta hezkuntza-aukerak zabaltzen lagun diezaioketen eskola, erakunde eta entitate publiko zein pribatuekin lankidetzan aritzeko bide guztiak irekita edukitzea. Lankidetzara hori didaktikoa, eta/edo logistikoa izan daiteke.

Musika eta Dantza Eskolak harremanak ditu hezkuntza, musika, dantza edo bestelako erakunde guztiarekin, besteak beste, Euskal Herriko Musika Eskolen Elkartearekin (EHME), UEMyD (Espainiako Musika eta Dantza Eskolen Elkarte), Europako Musika Eskolen Elkartearekin (EMU), herriko musika, dantza, ahots taldeekin eta beste ikastetxeekin. Lankidetzara horiek, besteak beste, honako helburu hauek izango dituzte:

1. Ikasgeletan eskuratutako ezagutzak Eskolatik kanpora eramatea, Eskolako hezkuntza-jarduerarekin lotutako kultura-jarduerak antolatuz edo horietan parte hartuz, ikasleengan publikoarekiko harremana sustatzeko.
2. Gure Eskolaren eta bertan ematen diren irakaskuntzen izaerarekin bat datozen jarduerak antolatzen dituzten artean loturak sor ditzaketen ekintza guztietan laguntzea, ikasleen prestakuntzarako eta herritarren aberastasunerako.
3. Euskal kultura-bizitza aberasten laguntzen duten erakunde publiko edo pribatuekin lankidetzan aritzea, Eskolako ikasgeletan sortzen den prestakuntza-jarduera tokikoak ez diren espazio eszenikoetara zabaltzeko, musika eta dantza hedatzea ahalbidetzen duten espazioen programazioak sustatuz eta horietan parte hartuz.

### 10. ESKOLAREN CURRICULUM PROIEKTUA

Curriculum jarraia akademikoa (irakaskuntza eta ikaskuntza) bideratzen duten helburuen, gaitasunen, edukien, irizpide metodologikoen eta ebaluazio-irizpideen multzoa da. Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak bere Curriculum Proiektua (ECP) egingo du, eta bertan zehazten eta jasotzen dira alderdi horiek guztiak.

### 11. ESKOLAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak egingo du Eskola kudeatzeko gobernu eta parte hartze organoen funtzionamendua eta Eskolaren antolaketa eta jarduerak arautzen dituen Antolaketa eta Jardueraren Araudia (AJA).



# BIZKARGI

## Musika eta Dantza Eskola

*Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak baimendutako Musika eta Dantza Eskola.  
Escuela de Danza y Música autorizada por el Departamento de Educación del Gobierno Vasco.*

### 12. BIZIKIDETZA ETA HEZKIDETZA EREMUA

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak egina du Bizikidetza eta Hezkidetza Plana. Plan horretan bizikidetza positiborako, aniztasunarekiko errespeturako eta gatazken konponbide baketsua sustatzeko helburuak, ekintzak eta esku-hartzeak jasotzen dira.

### 13. SEXU-ABUSUEN JARDUTEKO PROTOKOLOA

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolak balizko sexu-abusuen aurrean jarduteko protokoloa egin du.

### 14. HEZKUNTZA PROIEKTUA ONARTZEA, EBALUATZEA ETA ALDATZEA

Bizkargi Musika eta Dantza Eskolaren Hezkuntza Proiektua Zuzendaritza Batzordeak onartu du. Onartu ondoren, hezkuntza-proiektu hau Eskolako hezkuntza-komunitate osoak ezagutu eta bete beharko du.

Eskolako hezkuntza-komunitateari dagokio hezkuntza-proiektu horren jarraipena eta ebaluazioa egitea. Hezkuntza-proiektua ikasturtez ikasturte garatuko da, Eskolaren Urteko Planaren bidez, eta Urteko Planean ezarritako helburuen betetze-maila Eskolaren Urteko Memorian ebaluatuko da, eta, hala dagokionean, hobekuntza-proposamenak egingo dira.

Urteko Plana Zuzendaritza Batzordeak berrikusi, aldatu eta onartuko du, eta Memoria Batzar Nagusiak. Hezkuntza Proiektuaren aldaketa puntualak Plana eta Urteko Memoria onartzeko prozesu berean proposatu eta zehaztuko dira. Aldaketa horiek Zuzendaritza Batzordeak onartuko ditu.